ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO
Idazkaritza / Secretaría
2023UDIN0004

NIK, IÑAKI GALDOS LANDAK, ELGOIBARKO UDALEKO BEHIN-BEHINEKO IDAZKARI NAIZENEZ, honako hau

ZIURTATZEN DUT:

Tokiko Gobernu Batzordeak 2023ko martxoaren 27an egindako bileran, honako erabaki hau hartu zuela:

<u>2023 URTEAN EMUDAFE; MUSIKA ETA DANTZA FEDERAZIOARI IZENDUN DIRU-LAGUNTZA EMATEA.-</u> Aho batez onartu eta Akordio bilakatu da, Herritartasun Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

Alde batetik, Udalak 2023 ekitaldirako izendatu dituen aurrekontuak aztertu dira. Bertan 1 0205.481.334.00.15 2023 (183) zenbakidun partida izendatu da, 188.150,44 euroko zenbatekoa duena, EMUDAFE ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAZIOAri zuzenean dirulaguntzak emateko.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2009ko otsailaren 9an argitaratu zen Elgoibarko Udalaren eta bere Autonomiadun Erakundeen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 22. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzaren emakidari buruzko ebazpenaren eta dirulaguntza bideratzeko hitzarmenaren bidez arautuko dira Udalaren Aurrekontuan aurreikusitako izendun dirulaguntzak. Bertan, ezar daitezkeen baldintza eta konpromiso zehatzak zehaztuko dira.

Bestalde, dirulaguntza hau arautzeko, Kultura Sailak berariaz idatzi duen hitzarmena ere aztertu da.

Era berean, izendun dirulaguntzak emateko ezar daitezkeen prozedurari eta Legediari buruz Idazkariak idatzi duen txostena aztertu da.

Horretaz gain, Kontu-hartzailearen txostena aztertu da. Bertan egiaztatuta geratu da Udalaren aurrekontuetan horretarako adina den partida badagoela.

DON IÑAKI GALDOS LANDA, SECRETARIO ACCTAL. DEL AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR.-

C E R T I F I C O:

Que la Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el día 27 de marzo de 2023, adoptó, el siguiente acuerdo:

<u>APROBAR LA CONCESIÓN DE UNA SUBVENCIÓN NOMINATIVA A EMUDAFE; FEDERACIÓN DE MÚSICA Y DANZA, EN EL AÑO 2023.-</u> Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Ciudadanía:

Vistos los Presupuestos municipales para el ejercicio 2023, en los que se consignaba la partida 1 0205.481.334.00.15 2023 (183) con un importe de 188.150,44 euros para el otorgamiento de la concesión de subvenciones de manera directa a EMUDAFE ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAZIOA.

Resultando que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22 y siguientes de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Elgoibar y sus Organismos Autónomos, publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 9 de febrero de 2009, las subvenciones previstas nominativamente en el Presupuesto municipal se regirán por la resolución de concesión y por el convenio a través del cual se canalicen, donde se establecerán las condiciones y compromisos específicos aplicables.

Visto el convenio regulador de esta subvención redactado al efecto por el Departamento de Cultura.

Visto el informe de Secretaría en relación con el procedimiento y la Legislación aplicable para la concesión nominativa de subvenciones.

Visto el informe de Intervención en el que se acreditaba la consignación de suficiente partida en los Presupuestos municipales.


2016 Bikain euskararen kalitate ziurtagiria

Herritartasun Batzorde Informatzaileak Tokiko Gobernu Batzarrari proposatzen dio ondoko **AKORDIOAK** har ditzala:

**Lehenengoa.-** EMUDAFE ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAZIOAri, Udal Korporazioak 2023ko ekitaldirako jarri duen gastuen aurrekontuko 1 0205.481.334.00.15 2023 (183) zenbakidun partidaren kontura, guztira, 188.150,44 euroko zenbatekoa duen izendun dirulaguntza bat ematea, ondoren zehaztuko diren jarduerak egiteko:

ELGOIBARKO HERRIAN MUSIKA ETA DANTZA HEDATZEA ETA BULTZATZEA.

**Bigarrena.-** 2023 urteko hitzarmen arautzailea onartzea. Bertan zehazten dira esleipendunak dirulaguntza ezartzeko eta justifikatzeko izango dituen betebeharrak eta konpromisoak. Halaber, Alkate andreari eskumena ematea, hitzarmena sina dezan.

**Hirugarrena.-** Akordio hau EMUDAFE ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAZIOAri, jakinaraztea, eta hamar laneguneko epea ematea, Udaletxera, hitzarmena sinatzera bertaratu dadin, dirulaguntza onartzen duela adierazteko. Era berean, hitzarmena sinatzeko ekitaldiaren aurretik, 13.170,53 euroko bermea (emandako zenbatekoaren %7) jarri beharko du Udalaren diruzaintzan, eta eskaera ofiziala aurkeztu beharko du, eta eskaerarekin batera, aitorpen erantzule bat ere bai, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 11. artikuluan dirulaguntzen onuradun izateko debekua ezartzen duten kausaren batean sartuta ez dagoela egiaztatzeko. Behin horiek jasota, Elgoibarko Udalak ofizioz egiaztatuko du udalarekiko zerga betebeharrak eta NISAEren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformen bidez, egiaztatu ahal izango ditu ondorengoak: Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria eta Foru Ogasunekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria. Hala ere, egiaztatze horri uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, goian aipatutako agiri horiek aurkeztu beharko ditu.

La Comisión Informativa de Ciudadania propone a la Junta de Gobierno Local la adopción de los siguientes **ACUERDOS:**

**Primero.-** Otorgar, a EMUDAFE ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAZIOA con cargo a la partida 1 0205.481.334.00.15 2023 (183) del presupuesto de gastos de esta Corporación para 2023, una subvención nominativa por importe total de 188.150,44 euros con objeto de realizar las siguientes actividades:

POTENCIAR Y DIFUNDIR LA MÚSICA Y LA DANZA EN EL MUNICIPIO DE ELGOIBAR.

**Segundo.-** Aprobar el correspondiente Convenio regulador para el año 2023, en el que se detallan las obligaciones y compromisos del concesionario para aplicar y justificar la subvención, facultando a la Sra. Alcaldesa para su firma.

**Tercero.-** Notificar el presente acuerdo a EMUDAFE ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAZIOA, y requerirle que, en el plazo de diez días hábiles previo depósito de una garantía de 13.170,53 euros (7% de la cuantía concedida) en la depositaría municipal; se persone en el Ayuntamiento para firmar el convenio y expresar la aceptación de la subvención. Asimismo, previo al acto de firma del convenio, deberá presentar la Solicitud oficial, y junto con ella, una declaración responsable, donde se acredite que no incurre en ninguna de las causas de prohibición establecidas en el artículo 11 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones para ser beneficiaria de subvenciones. Una vez recibidos dichos documentos, el Ayuntamiento de Elgoibar verificará de oficio el cumplimiento de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento; y a través de la plataforma de intermediación de datos entre administraciones NISAE, verificará los siguientes extremos: documento acreditativo de tener al día las obligaciones con la Seguridad Social y documento acreditativo de tener al día las obligaciones fiscales con las haciendas forales. No obstante, la persona solicitante podrá oponerse a dicha verificación. En ese, caso deberá presentar los documentos anteriormente citados.

**Laugarrena.-** Emandako zenbatekoaren aurrerapen gisa, justifikazioa egin aurretik, hau da, 15.679,21 euro, hilero ordaintzeko onarpena ematea, behin arestiko hitzarmena sinatu ostean.

**Cuarto.-** Aprobar el pago como anticipo de la cuantía concedida, es decir, 15.679,21 euros cada mes con carácter previo a la justificación, una vez firmado el citado convenio.

**Bosgarrena.-** Dirulaguntza izendun honen emakidari buruzko akordio honetako datu egituratuak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (BDNS) erregistratzea.

**Quinto.-** Registrar los datos estructurados del presente acuerdo de concesión de subvención nominativa en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS).

**Seigarrena.-** EMUDAFE ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAZIOAri honako hau aditzera ematea: dirulaguntza zuritzeko dokumentazioa aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 12an bukatuko dela.

**Sexto.-** Comunicar a la EMUDAFE ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAZIOA que el plazo para que presente la documentación justificativa de la subvención finaliza el 12 de enero de 2024.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau luzatzen dut Alkate andrearen O.I.rekin,

Y para que así conste, expido la presente certificación con el Vº.Bº. de la Sra. Alcaldesa,

O.I.-Vº.Bº.
ALKATEA, - LA ALCALDESA

**ANE BEITIA ARRIOLA**
**Data / Fecha: 2023-03-30**

**IÑAKI GALDOS LANDA**
**Data / Fecha: 2023-03-30**

| Sinatzaileak/Firmantes | IDAZKARIA / EL SECRETARIO: IÑAKI GALDOS LANDA<br>ALKATEA / LA ALCALDESA: ANE BEITIA ARRIOLA | | |
|---|---|---|---|
| Kodea/Código | M23/0929 | Udala/Ayto. | Elgoibar |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/100/AAAAS2JB2.knHJ | | |
| **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen baliotasuna egiaztatzeko ondorengo webgunean sar zaitez edo QR irudia irakur ezazu.** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la validez acceda a la WEB o lea la imagen QR | | | |